

# **FLUIDOEN INSTALAZIOAK ETA MAKINAK: LABORATEGIKO PRAKTIKEN GIDOIA**

## **AUTOEBALUAZIOA**

### **3. GAIA: TURBINAK: Pelton Turbina**

**Ingeniaritza Nuklearra eta Fluidoek Mekanika Saila**

1. Pelton turbina:
  - a. Eragineko turbina bat da energia trukaketa presio atmosferikoan gertatzen delako.
  - b. Eragineko turbina bat da energia trukaketaren parte bat errodetearen sarrera eta irteeraren artean presio ezberdintasun bat dagoelako.
  - c. Erreakzioko turbina bat da energia trukaketaren parte bat errodetearen sarrera eta irteeraren artean presio ezberdintasun bat dagoelako.
  - d. Erreakzioko turbina bat da energia trukaketa presio atmosferikoan gertatzen delako.
  
2. Pelton turbina baten injektorearen zeregina:
  - a. Ur zorrotada errodetearen ardatzera bideratzea da.
  - b. Galera energetikoak murrizteko asmoz, korrante lerroak paraleloki zuzentzea da.
  - c. Eratu daitekeen potentzia maximoa lortzeko asmoarekin, koilaren tamaina baino pixkat handiagoa den zorrotada eratzea da.
  - d. Fluxuak duen presio energia zinetikoan eraldatzea eta emaria erregulatzea da.
  
3. Funtzionamenduko puntu optimoan:
  - a. Eratzen den potentzia mekanikoa maximoa da.
  - b. Errendimendua maximoa da.
  - c. Pare mekanikoa maximoa da.
  - d. Eratzen den potentzia hidraulikoa maximoa da.
  
4. Errendimendu maximoa funtzionamendu puntua:
  - a. Bat egiten du potentzia mekaniko maximoarekin.
  - b. Bat egiten du pare mekaniko maximoarekin.
  - c. Bat egiten du potentzia hidrauliko maximoarekin.
  - d. Aurreko bat ere ez.
  
5. Praktikan deskribatzen den Pelton turbinak lan egiten duen baldintzetan, potentzia hidraulikoari dagokionez:
  - a. Eta injektorearen kokapen konkretu baterako, biraketa-abiadurarekin jaitsiko da.
  - b. Emaria handitzen den heinean haziko da.
  - c. Altuera manometrikoa handitzen den heinean jaitsiko da.
  - d. Bakarrik aldatzen da injektorearen kokapenarekin.
  
6. Praktikan deskribatzen den Pelton turbinak lan egiten duen baldintzetan, pare mekanikoari dagokionez:
  - a. Eta injektorearen kokapen konkretu baterako, biraketa-abiadurarekin jaitsiko da

- b. Eta injektorearen kokapen konkretu baterako, biraketa-abiadurarekin haziko da.
  - c. Eta injektorearen kokapen konkretu baterako, konstante mantenduko da.
  - d. Eta injektorearen kokapen konkretu baterako, bere joera parabolikoa da.
7. Praktikan deskribatzen den Pelton turbinak lan egiten duen baldintzetan, potentzia mekanikoari dagokionez:
- a. Emari nulurako, bere balioa zero da.
  - b. Bakarrik da pare mekanikoaren araberakoa.
  - c. Bere joera zuzen batena da.
  - d. Injektoreak aurkezten duen irteera diametroaren araberakoa da.
8. Praktikan deskribatzen den Pelton turbinak lan egiten duen baldintzetan, errendimenduari dagokionez:
- a. Emari nulurako, bere balioa zero da.
  - b. Potentzia hidraulikoaren eta potentzia mekanikoaren arteko zatidura da.
  - c. Potentzia mekanikoaren eta potentzia hidraulikoaren arteko zatidura da.
  - d. Bere joera zuzen batena da.